

Gizarte Segurantzaren jarritako lehergailu bat indargabetu dute

Bonbak bost kilo amonal zituen eta Ertzaintzak kendu zuen

Donostiako Amara auzoan Gizarte Segurantzako egoitzaren kanpoaldean jarrita zegoen lehergailu bat indargabetu zuen atzo Ertzaintzak. ETaren izenean DYA elkartera deitu zuen pertsona batek eman zuen bonbaren berri.



Ertzainak, lehergaia jarria zegoen tokian, Gizarte Segurantzaren egoitzaren ondoan.

JUAN HERRERO/EFE.

Erredakzioa/Donostia

ERTZAINTZAK Donostiako Amara auzoan dagoen Gizarte Segurantzako egoitzaren kanpoaldean zegoen lehergailu bat indargabetzea lortu zuen atzo, bonba bertan jarrita zegoela jakinaraziz dei bat jaso ostean. Goizaldeko 05.50 aldera DYA elkarteraren egoitzara ETaren izenean deitu zuen pertsona batek Donostiako Amara auzoko Gizarte Segurantzako egoitzan lehergai bat jarrita zegoela iragarri zuen, eta hamabost minutu geroago eztanda egingo zuela. Delaren berri izan ostean, Ertzaintzako kideak Amarako Podavines kalean dagoen egoitzara joan ziren.

Barne Sailak jakinarazi duenez, Gizarte Segurantzaren egoitzaren kanpoaldean bizkar-zorro bat zegoela ikusi ostean, Ertzaintzak ingurua itxi zuen eta inguruetako etxeetako bizilagunei babes neurri egokiak har zitzatela eskatu zien. Bizilagunak etxetik ateratzea ez zen beharrezkoa izan, Gizarte Segurantzaren erakinean ez baitago etxebizitzarik. Inguruetara anbulantzia bat eta suhiltzaileak ere bertaratu ziren, baina haien parte hartzea ez zen beharrezkoa izan. Izan ere, Ertzaintzak lehergailua indargabetu zuenez, ez zen inolako kalte materialik izan, ezta zauriturik ere.

Inguruak itxi ostean, Ertzaintzako Lehergailuak Indargabe-

tzeko Unitate Bereziak, txakur-aren unitatearen laguntzaz, bizkar-zorroaren barruan lehergailua zegoela baieztatu eta indargabetzeari ekin zion, eta 08.30ak aldera lortu zuen helburua. Lehergailua presio-eltze baten barruan zegoen, eta hura bizkar-zorroan sartuta. Herrizaingo Sailak prentsa ohar batean jakinarazi duenez, lehergailua bost kilo amonalez osatua zegoen, eta detonatzailea eta tenporizadorea zituen.

Barne Sailaren arabera, lehergailuaren osaera ikusita, eztanda egin izan balu kalte garrantzitsuak eragingo lituzke Gizarte Segurantza dagoen eraikinaren egituraren eta baita inguruetako etxebizitzetan ere. X

Asteartean Iruñean atxilotutako bi gazteak espetxera bidali ditu epaileak

«Terrorismo» delitua egotzi diete Guillermo Garcia eta Jordi Portiri

Erredakzioa/Iruñea

ASTEARTEAN Iruñean atxilotu zituzten bi gazteak espetxeratu egin zituzten atzo, Madrilgo Entzutegi Nazionalan deklaratu eta gero.

Guillermo Garciak eta Jordi Portik Maria Teresa Palacios epailearen aurrean deklaratu zuten. Efe agentziak zabaldu zuenez, Garciak onartu egin zuen leporatzen dizkioten sabotaje batzuetan parte hartu zuela. Jordi Portik, berriz, dena ukatu eta Garcia ez zuela ezagutzen esan zuen. Epaileak «terrorismoa, lesioak eta kalte materialak» ego-

tzi zizkien, eta biak espetxeratze-ko agindua eman zuen.

Garcia, 19 urtekoa, astearte goizean atxilotu zuten Arrosadia auzoan, etxetik hurbil. Porti, 20 urtekoa, ordu batzuk geroago atzeman zuten. Biak inkomunikatuta eduki zituzten Iruñeko komisarian eta, Amnistiaren Aldeko Batzordeak jakinarazi dutenez, Porti Nafarroako Ospitalera eraman behar izan zuten herenegun errebisio bat egiteko. AABen arabera, ubeldurak zituen aurpegian.

Nafarroako Gobernu Ordezkaritzak bost sabotaje eta Poliziaren aurkako eraso bat egotzi zizkien

bi gazteei, eta Y talde bateko kide izateaz akusatu zituen. Atxilotetako astelehen gaueko sabotajearen ondoren gertatu ziren -norbait su eman zion Urdax Monasterioa kaleko Caixa Galiciari-. Iruñean aspaldian ez zen horrelakorik gertatzen.

Jarraik eta AABek gogor salatu dituzte atxilotetak. Erakunde horien ustez, Poliziak frogarik gabe atxilotzen ditu gazteak, gero haiek inkomunikatu eta «tratu txarren bidez nahi dituzten aitopanak lortu». Jarraik gaur arratsaldeko 19:00etan Golem zinema aretoen parean biltzera deitu ditu gazteak. X

Izar Etxebeste espetxeratu du Entzutegi Nazionalak

ETAko kideak etxean gordetzea egotzi dio

Erredakzioa/Donostia

ESPAINIAKO POLIZIAK astear- tean Donostian atxilotutako hiru gazteetatik bat espetxeratu du Entzutegi Nazionalako Teresa Palacios epaileak: Izar Etxebeste Etxabe. Arantza Martin Cia eta Rikar Balerdi Ibarguren, berriz, libre utzi zituzten. Epaileak hiru gazteek inkomunikatuta deklaratu zezaten erabaki zuen, eta, beraz, ez zuten alboan konfiantzazko abokaturik izan. Izar Etxebeste 27 urte ditu eta Donostiako Egia auzokoa da. Epaileak baldintzarik gabeko espetxeratzea agindu zuen, ETari laguntza eman izana ego-

tzita. Entzutegi Nazionalako iturri- rriek adierazi zuten, ustezko ETAko kideak etxean gorde izana leporatu zioten, horien artean Fernando Elejalde.

Hiru atxilotuak arratsaldeko 16:40etan eraman zituzten Entzutegi Nazionalera deklaratzera. Asteartean atxilotu zituzten, eta Polizia Nazionalaren komi- saldegian izan dira inkomunikatuta. Atxilotuak zeramatza- ten autoetako batek Entzutegi kanpoan zegoen auto bat jo zuen Entzutegira sartzera zihoa- nean. Artean atxilotuen seni- tartekoak Entzutegi Nazionala- ren kanpoaldean ziren, atxilo- tuekin zer gertatuko zen zain. X

Euskal presoak baraualdian Burgosen eta Puerto II-n

Protestak egiten ari dira hainbat espetxetan

Erredakzioa/Donostia

BURGOS-EN eta Puerto II espe- txeetan dauden euskal presoek baraualdiak hasi dituzte, Eus- kal Herrira ekar ditzatela eska- tzeko. Beste espetxe batzuetan ere protestak egiten ari dira.

Burgosen diren presoek 24 orduko baraua egin zuten atzo, eta gaurtik aurrera txandaka segituko dute egun osoko gose grebak egiten. Hauek dira Bur- gosen protestan ari diren preso- ak: Enrike Arana, Jokin Alda- nondo, Joxean Arluziaga, Felix Bengoa, Antonio Garcia More-

no, Rikardo Garciandia, Adolfo Gonzalez Aldea, Ramon Irusta, Luis Mari Lizarralde eta Luis Al- berto Pastor.

Puerto II-ko presoak, berriz, lau eguneko gose greba egiten ari dira. Presoak hauek dira: Jo- seba Artola, Joseba Andoni Basterra, Jose Mari Etxaniz, Jo- xean Kortadi, Juan Jose Larri- naga, Juan Carlos Lezertua, Ja- bi Martinez, Manu Muiños, Ri- kardo Prieto, Jose Mari Sagar- dui, Antton Troitino, Joseba Uranga, Iñaki Urdiaín, Kepa Urrea, Josepa Ernagan eta Alicia Pereira. X



OLAZTIKO UDALA

LIZITAZIO IRAGARKIA

Udalaren 1997ko azaroaren 28ko ebazpena, zeinaren bidez iragartzen baita Kamiogaina kalearen Zolaketa obren kontratazioa prozedura negoziatuaren bitartez -Olaiztik Udalaren titulartasuna-, goian aipatu obrak hurrengo eduki honen arabera adjudikatuko:

I. Kontratuaren xedea.- Kamiogaina kalearen Zolaketa da kontratuaren xedea.

II. Kontratuaren iraupena.- Bi hilabete zuinketa akta sinatzen denetik.

III. Lizitazio mota.- 3.276.348 pezeta. BEZ barne.

IV. Ordainketa.- Adjudikazio prezioa ordaintzeko, indarreango aurrekontuko partidan zordunduko da.

V. Pleguen publizitatea.- Agerian izango dira lanegun guztietan Udal Bulegoetan, kontratazio sailean.

VI. Behin-behineko garrantia.- Lizitazio motaren %2 izango da, hau da, 65.527 pezeta.

VII. Behin betiko garrantia.- Aurrekontuaren %4.

VIII. Proposamenen aurkezpena.- Lizitazio iragarkia egunka- rietan argitaratu ondorengo 20 egun naturalean.

IX. Proposamenen irekiera.- Proposamenak aurkezteko epea bukatu ondorengo 3. laneguneko 14:00etan izango da.

Olaizti, 1998ko urtarrilak 13
ALKATEA

Proposamen erredua.- Baldintzen Pleguan jasotakoa.

..... jaun/andrea, adinez nagusia,
..... (e)ko bizilaguna, zki.ko
helbideduna, eta (e)an luzatutako
NANaren titularrak, bere izenean -edo
(r)en ordez, zein (e)ko bizilaguna baita, eta
..... helbideduna, Ahalmen Asketsiak
egiazatu bezala-,
..... t(z)eko obrak prozedura irekiaren
bidez adjudikatuko tramitatutako lehiaketaren jakinaren gainean,
konprometitzen da haiek egitera adjudikazio irizpide objektiboei
jarraiki hurrengo baldintza hauetan: Prezioa:
pezeta. Materialen kalitatea: Gauzatze-
ko epea:
....., 199....(e)koak